

Helburu didaktikoak	
1. Sentimenduak eta haien zergatiak adierazteko lexiko eta egitura egokiak erabili.	<p>1.1. <i>Eskainitako sentimenduak eta horiek adierazteko hitzak, lokuzioak, esaldiak, erlazionatu eta berriak adierazten ditu.</i></p> <p>1.2. <i>Zergatiak adierazteko egiturak egoki eta zuzen erabiltzen ditu.</i></p>
2. Literatur testuak aztertuz haietan adierazten diren sentimenduak interpretatu.	<p>2.1. <i>Emandako testuak interpretatu eta bertan adierazten diren sentimenduak adierazten ditu.</i></p>
3. Emandako testu poetikoen imitazioaren edo eraldaketa gidatuaren bidez, sentimenduak adierazten dituzten poemak sortu.	<p>3.1. <i>Emandako testu poetikoetan metaforak identifikatzen ditu.</i></p> <p>3.2. <i>Emandako testu poetikoak osatzeko konparazio egokiak hautatzen ditu.</i></p>
4. Emandako euskarrietan/ereduetan (testu/hitz multzo) izenak, adjektiboak eta aditzak identifikatu eta gramatika elementu horiek eskatutako irizpideen arabera aldatu.	<p>4.1. <i>Emandako testuetan, kategoria gramatikalen baitan (izena, adjektiboa eta aditza) eskatutako hitzak identifikatzen ditu.</i></p> <p>4.2. <i>Emandako testu poetikoetan eskatutako hitzak ordezkatzeko, zuzentasun-arauak kontuan izanik, egokiak hautatzen ditu (adjektibo egokiak, aditz jokatu egokiak, denbora egokian jokatutako aditzak, etab.).</i></p>
5. Norberak hautatutako zein emandako poemaren irakurketa adierazkorra egitean landutako baliabideak egoki aplikatu.	<p>5.1. <i>Poemaren irakurketa adierazkorra prestatzeko, poemak adierazten duen sentimendua interpretatzen du.</i></p> <p>5.2. <i>Poemaren irakurketa adierazkorra prestatzeko, poemako hitz edo zati esanguratsuak identifikatu eta nabarmentzeko modu ezberdinak erabiltzen ditu.</i></p> <p>5.3. <i>Testu poetiko baten ahoz gorako irakurketa prestatzeko, elkarketa fonetikoak identifikatzen ditu.</i></p>
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1. <i>Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</i></p> <p>6.2. <i>Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</i></p>